

PRENTSA OHARRA

Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren Patronatuak onartu egin du Berritze Akordioa Solomon R. Guggenheim Foundation-ekin

Guggenheim Fundazioaren Patronatuak onartzeke dago; abenduaren 9an bilduko da New Yorken

Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren Patronatua bildu da gaur eta bertan izan dira: Patronatuaren Presidente eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakari Iñigo Urkullu jauna; José Luis Bilbao, Bizkaiko Ahalduen Nagusia eta Fundazioaren Batzorde Betearazlearen Presidente; Cristina Uriarte andrea, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburua; Josune Ariztondo andrea, Kultura Foru Diputatua; eta New Yorkeko eta Bilboko Guggenheim Museoen Zuzendariak, Richard Armstrong eta D. Juan Ignacio Vidarte; horrez gain, Fundazioaren gobernu-organo gorenaren parte diren erakunde eta enpresen ordezkariak ere bertan izan dira.

Batzar honetan Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren Patronatuak onartu egin du 1994ko abenduaren 21ean Solomon R. Guggenheim Foundationekin sinatutako Kudeaketa Akordioaren berritzea. New Yorkeko Fundazioak ere onartu behar du dokumentu hori; abenduaren 9an bilduko da eta ondoren behin betiko sina daiteke. Itun honen inguruko gakoak atxikitutako dokumentuan daude.

Bileran, halaber, Museoaren jardunaren balantzearen berri eman zen. 2014ko azaroaren 15a artean, 917.289 bisitari jaso ditu, tarte horretan iaz baino %8 gehiago eta data hauetarako aurreikusitakoa baino gehiago. Horietatik, %66 atzerritarrak izan ziren, batez ere, Frantziakoak, Erresuma Batukoak eta Alemaniakoak. Era berean, 2015erako aurrekontua, 27.718.242 eurokoa, baietsi zuten. 2015erako ez da Museoaren sarreren prezioaren igoerarik aurreikusten; seigarren urtez ez dira aldatu.

2015eko arte-programazioaren proposamenean orientazio estrategiko berria dago: horren arabera, hirugarren solairuko aretoetan, uztailetik aurrera eta modu erdi-iraunkorrean, Guggenheim Bilbao Bildumako lan esanguratsuenak ikusgai egongo dira; lanon testuingurua eta Bilduman duten garrantzia azpimarratuko da *Guggenheim Bilbao Bildumaren maisulanak* izeneko erakusketa horretan. 2015ean ere 105 aretoan ziklo berria hasiko da: gaur egungo artista adierazgarrien erakusketa monografikoak ipiniko dira ikusgai bertan. Urriaren erdialdetik aurrera, *Alex Katz: This is Now* erakusketa egongo da eta AEBko artearen ahots berezietako batek paisaia lantzeko modua aztertuko du. Horrez gain, aldi baterako hiru erakusketa handi izango dira: otsailean, *Niki de Saint Phalle*, XX. mendeko sortzaile gailenetako bati (muturrekoa, politikoa eta feminista) eskainitako atzera begirakoa; ekainetik aurrera *Jeff Koons: atzera begirakoa*, artearen historiako iturri ugaritik (Surrealismoa, Minimalismoa eta Dadaismoa, kasu) edaten duen sortzaile horren ibilbide osoa hartuko duena; eta udazkenean, *Making Africa: A Continent of*

Contemporary Design erakusketan, zeinetan gaur egungo diseinuaren (zentzu zabalean) eta artearekin lotutako diziplinen (irudigintza, zinema, argazkigintza, arkitektura eta hirigintza) arteko harremana ikertuko den. Programazioan barruan ere badaude Guggenheim Bilbao Bildumako Neoespresionismoaren eta Transabangoardiaren lan batzuen aurkezpena udan eta hiru bideoinstalazioren erakusketa Film & Video aretoan, hain zuzen, Kimsooja, Shahzia Sikander eta Ho Tzu Nyen artistenak. Horrez gain, 2015ko arte-programazioa osatzeko lanean ari da Museoak: egin nahi den erakusketa horrek publiko handiarentzat interesa izango luke eta ekitaldiaren bigarren zatian izango litzateke.

2014an 2020ko Asmoa betetzeko Museoak zehaztutako bigarren Plan Estrategikoa (2013–2014) amaitutzat joko da. Hortaz, gaur egungo egoera aztertzeke eta haren inguruan hausnartzeko tartea ondoren, 2015–2017rako, hurrengo hiru urterako, helburu estrategikoak adierazi dira eta hurrengo urteetan Museoaren Zeregina eta Asmoa garatzeko ekimenak gehitu dira. Plan Estrategiko berri hau ere onartu egin dute Patronatuko bilera honetan.

Gaur ere batzartu da Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao sozietatea eta ontzat eman du Yoko Ono artistaren bi lanen dohaintza Guggenheim Bilbao Bildumari: *Bilborako nahien zuhaitza* (*Wish Tree for Bilbao*, 1996/2014) eta *Hichiko Happa* (2014). Lehenengoak 1996ko partaidetza-lan batean du jatorria eta bisitariak gonbidatzen ditu “bake” mezuak idaztera. Bigarrena bederatzi mihisez osatuta dago, eta Museoko Entzungelan, hari eskainitako atzera begirakoa zela eta, Onok egindako *Ekintza pintura* performancea du jatorri; Yoko Onok haren artegintzan hizkuntza erabiltzeko moduaren adibide bikaina da.

Bilbon, 2014ko abenduaren 3an

Guggenheim Bilbao Museorako Kudeaketa Akordioaren Berritzea

2014ko abenduan Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioaren (GBM) eta Solomon R. Guggenheim Foundation-en (SRGF) arteko Guggenheim Bilbao Museorako Kudeaketa Akordioa berrituko da; akordioa Guggenheim Fundazioaren Patronatuak abenduaren 9an onartzeke dago.

Berritzeak funtsezko hiru ardatz ditu:

1. GBMren eta SRGFren arteko harremanaren oreka
2. Lankidetzaren sakontasuna, lankidetzari balio erantsia gehitzeko proiektuen bidezkoa
3. Egonkortasun eta konpromiso handiagoa, epe luzerako luzapenaren bidez (20 urte)

1. GBMren eta SRGFren arteko harremanaren oreka

Kudeaketa-akordia sinatu zenetik 20 urte igaro dira, eta urte horietan SRGFren eta GBMren arteko harremanak bilakaera handia izan du; gaur egun GBM kultur erakunde heldua da, arte- eta kudeaketa-arloetan profesionaltasun maila handia lortu du eta Guggenheim sarearen barruan haren nortasuna sendotu du.

Hortaz, berritzearen funtsezko xedeetako bat da bi alderdien arteko harreman orekatua: berdintasunez eta elkarlanean esku hartzen dute Bilboko Museoaren funtzionamenduan; horrek gaur egungo GBMren benetako kudeaketaren eredua berresten du eta hasierako Kudeaketa-akordioan hitzez hitz emandako baino jardun-autonomia handiagoa eskaintzen du. SRGFk “*Guggenheim Bilbao Museoa kudeatuko du*” izatetik “*SRGFk parte hartuko du Guggenheim Bilbao Museoaren kudeaketan eta operatiban*” izatera igarotzen da. Egitura horrek, gainera, Akordioan arautzen diren beste hainbat eremutan eragina du.

Halaber, bi alderdiek museo-azpiegitura berriak kudeatzeko prozesuan dauden ekimenak berretsi dituzte. SRGFren kasuan, Helsinkiko proiektua litzateke eta Guggenheim Bilbao Museoaren kasuan, egokitza joz gero, EAEn hedapen eteneko proiektua garatzeko aukera. Museo baten zuzentzearekin zein kudeatzearekin lotutako beste edozein proiektu aurrera eraman nahi izanez gero, beste alderdiari galdetzeko edo/eta beste alderdiak baimena emateko beharra dago.

Azkenik, Euskal Administrazioen ordezkari bat SRGFren Patronaturen kide izatea formalizatu da; egoera hori, lankidetzaren hasieratik luzatu izan da.

2. Lankidetzaren sakontasuna, lankidetzari balio erantsia gehitzeko proiektuen bidezkoa

Etengabe berritzeko eta aldatzeko asmoaz bat eginez, SRGFk eta GBMk beste bide batzuk hartu dituzte haien arteko harremanean: balio gehigarriko proiektuak, orain arteko landutako bestelako arloetakoak, eta Guggenheim museo sareen irudia —bikaintasunari, garaikidetasunari eta arte-berrikuntzari lotua— berritzeko erabilgarriak izango direnak abian jarriko dituzte. Sarean garatzeko proiektuok honakoak barne hartzen dituzte:

- SRGFk ardura orokorra du haren bildumako lanez eta erakusketez GBMren arte-programazioa aberasteko, eta, Akordio berriaren arabera, horrez gain, hori osatzeko, gainerako konpromiso bat hartu du: GBMren arte-programazioa indartzeko, SRGFk haren bildumako XX. eta XXI. mendeko funtsezko lan gailen eta adierazgarrien sei hilabeteko erakusketa bat antolatuko du bi urtean behin, erakusketa garatu eta antolatzeko kargu gabe. Lehen aurkezpenak, 2016an, XIX. mende amaiera eta XX. mende hasiera arteko lanen aukeraketa bat hartuko du. Proiektu honek Guggenheim Bildumek Bilbon duten presentzia jarraikia areagotzean du; GBMk gainera ekimen estrategiko berria abian jarriko du horrekin batera, hain zuzen, Guggenheim Bilbao Bildumako lanak modu erdi-iraunkorrean aurkeztuko ditu.
- SRGFren langileen lankidetzaren tartean, Bilborako lanean dedikazio osoz dagoen arte-arduradun bat, GBM langileekin Bilboko jardunaren ingurukoak koordinatzeko.
- Arte-ardurarako aholkularitza taldearen sorrera SRGF eta GBMko arte-arduradunen parte-hartzearekin. GBMri programazio artistikoa etengabe hobetzeko nahian babes emateko helburuarekin lan egingo du.
- Bilbori maileguan utzitako SRGFren bildumako artelanak eta SRGFk Guggenheim Bilbao Museoa antolatutako erakusketetako hirugarren batzuen jabetzako artelanak SRGFren arrisku orotako aseguruaren poliza orokorrean sartzea.
- Euskal ikasleentzako beken programa New Yorken, arte- eta museo-eremuetan ibilbidea egiteko interesa dutenei trebakuntza eta praktikak eskaintzeko aukera ematen duena.
- Euskal artista gazteentzako beken programa New Yorken, hiria, arte-sorkuntzaren erdiguneetako bat denez, sakonetik ezagutzeko aukera ematen duena.

Berritze-aldian bi museoen arteko harremanaren beste egituraketa bat irmotuko da, tartean beste finantza-eredu bat, urteko 1.920.000 euroko ordainketa barne hartzen duena.

3. Egonkortasun eta konpromiso handiagoa, epe luzerako luzapenaren bidez (20 urte)

Bi alderdiak ados daude bien arteko lankidetzak ondorio arrakastatsuak izan dituela: lankidetza horrek Bilboko eta Euskadiko hirigintza, ekonomia, kultur giroa eta gizartea eraberritzen eta kultur eta turismo eskaintza aberasten lagundu du; gainera, museo-eredu berritzailea sortu du eta horrek Guggenheim sarea nazioartean sendotu eta haren arte moderno eta garaikide bilduma bikainak zabaltzen lagundu du.

Lorpen horiek indartzeko eta berritze-aldiko asmoak modu sendoan bideratzeko, SRGFk eta GBMk adostu dute lankidetza 20 urtez luzatzea, aurreikusitako 10 urtez beharrean; horrek aditzera ematen du bi alderdien arteko konpromisoa epe luzerako dela eta harremana egonkortasunez jorratzeko nahia dutela.

Bilbon 2014ko abenduaren 3an